



190. ALEA - 2026KO ABUZZTUA

BASABURUKO UDAL BULETINA

ERREDAKZIOA: AMETZA




www.basaburua.eus
udala@basaburua.eus
948 50 30 35

EGUNEKO ZENTROA IRAILAREN 1EAN, ZABALIK

Adinduei zuzendutako Basaburuko Eguneko Zentroa Jauntsarasko Txokolateroren etxe zaharberrian irekiko da irailaren 1ean. Bost erabiltzaileekin abiatuko da baina 15 plaza izanen ditu osotara eta lehenetsua dute menpekotasun eta menpekotasun larria dutenek. Nafarroako Gobernuak plaza kontzertatuen Open House kontratazio sistema berria ezarriko da, eta, horregatik, zerbitzuarengatik gutxiago ordainduko dute familiak. Gobernuarekin hitzarmena osatzen den bitartean, gainera, Udalek ordainduko dute kostuaren diferentzia. Amaia Lakarta zuzendaria ekainetik ari da lanean, espazioa egokitzen, behar den materiala eskuratzen eta proiektua diseinatzeko. Hurrengo orrietan hari egindako elkarrizketa aurkituko duzue. Irailaren 1eko zaizkio Marta Zubieta gerokultorea eta Maitane Iribarren sukaldaria.

EL CENTRO DE DÍA ABRE EL 1 DE SEPTIEMBRE

El Centro de Día de mayores de Basaburua abrirá el 1 de septiembre, en la casa rehabilitada de Txokolatero. Comenzará a andar con cinco usuarios aunque tiene plaza, en total, para 15 personas y tienen prioridad las dependientes o con dependencia severa. Se registrará a través del sistema de plazas concertadas Open House del Gobierno de Navarra, por lo que las familias pagarán menos por el servicio. Mientras se formaliza este acuerdo, serán los Ayuntamientos los que cubran la diferencia del coste. Amaia Lakarta es la directora y desde junio está trabajando para acondicionar el espacio, pedir el material necesario y diseñar el proyecto. Lo cuenta en la entrevista que se encuentra en las próximas páginas. En septiembre se le unirán la gerocultora Marta Zubieta y la cocinera Maitane Iribarren.



TXOKOLATERO
eguneko zentroa

AMAIA LAKARTA AIZKORBE, EGUNEKO ZENTROKO ZUZENDARIA:

"Babes emozionalerako espazio bat ere izatea nahi dugu"

Txokolateroren etxe zaharberrituan zabalduko den Eguneko Zentroaren zuzendaria izanen da Amaia Lakarta Aizkorbe, Udalak martxan jarritako deialdi publikoaren bidez izendatua. 27 urtekoa, Berriozarkoa da, nahiz eta eskualderekin lotura baduen. Soziologia eta Gizarte Langintza ikasi zuen Sevillan eta bi master ditu: Pertsona zaurgarrien babes juridiko-sozialean eta Gerontologian eta pertsonengan oinarritutako arretan. Gizarte bazterketa arriskuan dauden adingabeekin eta tutoretzapeko pisuetan lan egin ondoren, Doneztebeko Osasun Etxean eta Malerrekako jubilotekan ere esperientzia zabala du.

- Zer da Eguneko Zentro bat?

Pertsona edadetuendako zerbitzu bat da. Helburua, arreta integrala eta pertsonen zentratutako arreta eskaintzea da. Egonen diren orduetan, ariketa fisikoak, estimulazio kognitiborako eta sozializaziorako jarduerak egingen ditugu. Azken hau ere oso garrantzitsua da, adinduek harremanak galtzen ohi dituztelako, etxean gelditzen dira eta nahi ez den bakardadea eman ohi da. Hemen kontrakoa lortu nahi dugu, beste pertsonekin egon daitezela eta sozializazio hori mantentzea, hautatua ez den bakardadea murriztea. Ariketak egokituko ditugu fisikoki mantentzeko eta sarkopeniaren kontra egiteko, hau da, muskuluak ez gogortzeko. Kognitiboari dagokionez, memoria landuko dugu. Nik beti esaten dut adinduek dolu ugari pasa behar dituztela, eta memoria galtzea, gauzak ahazten hastea, hori ere dolu bat da, oso gogorra, eta ez dugu hitz egiten, nola sentiarazten dituen galdetzen. Beraz, babes emozionalerako espazio bat ere izatea nahi dugu. Zentro txikia da, hiru langile izango gara eta horrek aukera zabala ematen du, arreta ia-ia indibiduala eskaintzeko aukera.



"Komunitarioa izatea eta herrian txertatua egotea nahi dugu"

- Bere izenak dioen bezala, egunez egoteko tokia da, gero etxera itzuliko dira?

9:00etatik 17:00ak arteko ordutegia izanen du baina familiaren arnas beharrari lotuta, norbaitek lehenago behar baldin badu, egokituko gara, hori zaindu nahi dugu. Malgutasun osoa eskainiko dugula azpimarratu nahi dut, batek astean bitan bakarrik etorri nahi badu, bikain; egunero, baina hiru ordu, ederki; Bestetik, taxi zerbitzua egonen dela aipatu nahi nuen. Ordaindu beharrekoa, baina ongi dagoena. Eta taxia 9:00ak baino lehen pasako da.

- Zer garrantzia du horrelako espazio batek?

Prebentziorako garrantzitsua da. Senide hauen egoerak hobera egitea zaila da baina horrelako toki batean okerrera ez joatea saiatzen gara. Galera kognitiboa besarkatu behar dugu, baina horrelako zerbitzuak garrantzitsuak dira pertsonarekin egoteko eta prebenitzeko, adinduak denbora guztian etxean ez egotea. Txokolaterok erresidentzia batera ez eramateko aukera ematen du eta herrian gelditzeko. Gure ideia, gainera, komunitarioa izatea da. Adibidez, etxearen aurrean mahaiak eta egoteko tokia jarriko dugu, segurtasunarengatik itxita, baina kalea ikusteko aukerarekin eta herritarren bat farmaziara doala ba agurtu eta solasten gelditu daiteke. Komunitarioa izatea eta herrian txertatua egotea nahi dugu. Boluntarioekin baratza jartzeko asmoa ere bada, komunitarioa eta belaunaldien artekoa izan dadila, elkarri laguntzeko.

INFO: 621 52 00 82

AMAIA LAKARTA AIZKORBE, DIRECTORA DEL CENTRO DE DÍA: "Queremos que también sea un espacio para el cuidado emocional"

Amaia Lakarta Aizkorbe será la directora del Centro de Día que abrirá en la rehabilitada casa de Txokolatero, cargo que ha obtenido del concurso público del Ayuntamiento. Tiene 27 años y es de Berriozar, aunque tiene vínculo con la zona. Estudió Sociología y Trabajo Social en Sevilla y tiene dos másteres: Protección jurídico-social de personas vulnerables y Gerontología, atención central personal y las relaciones. Después de trabajar con menores en riesgo de exclusión social y en pisos de menores tutelados, también tiene experiencia en el Centro de Salud de Doneztebe y en la jubiloteca de Malerreka.



- ¿Qué es un Centro de Día?

Es un servicio para personas mayores. El objetivo es ofrecer una atención integral y centrada en las personas. En esas horas que pasan en el centro hacen ejercicio físico, trabajan la estimulación cognitiva y socializan. Esto último es muy importante porque las personas de edad avanzada pueden perder relaciones, suelen quedarse más en casa y eso a veces les lleva a una situación de soledad no escogida. Aquí queremos conseguir lo contrario, que se relacionen y que mantengan la socialización para reducir la soledad no deseada. Los ejercicios serán adaptados para que se mantengan físicamente, para luchar contra la sarcopenia, es decir, el agarrotamiento de los músculos. Y en cuanto a lo cognitivo, trabajaremos la memoria. Yo siempre digo que las personas de edad atraviesan muchos duelos y la pérdida de memoria, empezar a olvidar las cosas, eso también es un duelo, y muy duro. No hablamos de ello, de cómo les hace sentir. Así, queremos que también sea un espacio de cuidado emocional. Es un centro pequeño, de tres trabajadoras y eso ofrece grandes opciones para dar una atención casi individualizada.

- Cómo dice su nombre, es un centro para estar durante el día, ¿luego vuelven a casa?

Tendrá un horario de 9:00 a 17:00 pero teniendo en cuenta la necesidad de respiro de las familias, si alguien necesita traerlo antes, nos adaptaremos, queremos cuidar esa flexibilidad. Por otro lado, si alguien quiere traer a la persona usuaria solo dos días, por ejemplo, perfecto; que quiere todos los días pero solo tres horas, genial. Por otro lado, quiero mencionar que habrá servicio de taxi, bajo tarifa pero de una cuantía que está muy bien. Y el taxi pasará antes de las 9:00.

- ¿Qué importancia tiene un lugar como este?

Es importante para la prevención. Es difícil mejorar su situación pero un sitio como este ayuda a que el estado de esas personas no empeore. Tenemos que abrazar el deterioro cognitivo, pero servicios como este son importantes para estar con otras personas y trabajar la prevención, que las personas mayores no estén en casa todo el día. Txokolatero ofrece la opción de no llevarlas a una residencia y de que se queden en el pueblo. Nuestra idea, además, es que sea comunitario. Por ejemplo, vamos a colocar mesas y sillas en la parte delantera, en la calle y en un recinto cerrado por seguridad, pero que de la opción de si pasa algún vecino o vecina a la farmacia, pueda saludar y quedarse a charlar un ratito. Queremos que sea comunitario y que sea parte del pueblo. Hay alguna idea de voluntariado, para poner una huerta, que también sea intergeneracional y de apoyo mutuo.



GOXO-GOXO HASIKO DA IKASTURTEA

Jauntsarasko Oiartzabal Eskola termikoki isolatzeko lanak amaitzeaz dira eta ikasturte berria inguratzailerik termikorekin hasiko da. **Abilita** enpresa egiten ari da eta irailaren lehenengo hamar egunetan amaituko dira. Eskolako eraikin zaharraren kanpo paretetan eta teilatuan jarri da inguratzailerik termikoa. Teilatuaren kasuan, eraikin berrikoa ere, Ttikiena haur eskolako, isolatu da. Helburua, beroa hobe gordetzea da, energia eta gastua aurrezteko. Izan ere, asteburuetan galdara piztu behar da gaur egun, eraikina gehiegi ez hozteko. Lan hauen ondoren ez dela beharrezkoa izanen aurreikusten da.

Basaburuko Udalak onartu bezala, 253.000 euroko kostua du (B.E.Z.a kanpo) baina EH Bilduk egindako zuzenketa bati esker, 250.000 euro Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ordainduko ditu diru-laguntza bidez.

UN COMIENZO DE CURSO AGRADABLE

Las obras para aislar térmicamente la Escuela Oiartzabal de Jauntsarats están apunto de terminar y comenzará el curso con el aislante térmico colocado. La empresa encargada ha sido **Abilita** y terminará los trabajos los primeros diez días de septiembre.

La envolvente térmica se ha colocado tanto en las paredes exteriores del edificio antiguo como en el tejado. En el caso de este último, también se ha puesto en el edificio nuevo, donde se ubica la Escuela Infantil Ttikiena. El objetivo es mantener el calor de forma más eficiente para ahorrar energía y gastos. Hoy en día se tiene que encender la caldera también los fines de semana, y se espera que después de los trabajos no sea necesario.

Tal y como aprobó el Ayuntamiento de Basaburua, las obras tienen un coste de 253.000 euros (Sin I.V.A) pero gracias a una enmienda de EH Bildu, el departamento de Educación del Gobierno de Navarra se hará cargo de 250.000 euros con una subvención.



EGUTEGIA/ CALENDARIO:

IRAILA/ SEPTIEMBRE

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

- IHABENGO PESTAK
- IGOAKO PESTAK
- ITSASOKO PESTAK
- BERAMENDIKO PESTAK